

Erreferentziako
txartela:
Finantza-txartelen
erraztasun
guztiekin eta
gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako aseguru**
abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.

Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es
orrian

Legedordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

berria

2006ko uztaila
90. zkia. Doan

Santutxuko Jaiak

Sexismoa ipuinetan

Justugune



Jose Antonio Diez Alday

**“Bizitza osoa kazetaritzan
eman dut, ez dut uste
guztiz erretiratuko naizenik”**




Larrazabal batailoia Begoña aurrean

Esan beharrik ez dago. Hirurogeita hamar urte bete dira garagarrilaren 18 baten Espainiako Armadako militar eskuindarrek, euskal karlisten laguntasunagaz, Errepublikaren kontra matxinatu ziranetik. Hiru urteko gerra gogorra ekarri eben, milaka hildako, zauritu, preso, desagertu eta erbesteratuekin. Faxistei aurpegi emotera sozialistak, komunistak, ANV, Jagi-jagi, errepublikarrak, CNTkoak eta EAJkoak joan ziran. Argazkian, EAJko Larrazabal konpainiako gudariak Begoñako elizako ate nagusiaren aurrean, ikurriña eta guzti. Izan bedi faxismoari aurre egin eutsoen guztien gorazarre.

Argazkia Sabino Arana Fundazioarena da.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Santutxuko jaiak	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta euskerea ..	8	▶ Pico Mayor	25
▶ Boluetako jubilatua ..	10	▶ Hezkuntza	26
▶ Udalekuak	12	▶ Justugune	28
▶ Elkarrizketa: J. Antonio Diez Alday ..	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Oin jakin daurie Bertonen romanoak be euskeraz egitten zeuriela. Han Bittoridxen ez dakit ze inskriziño topau ta danak zoratute. Total Jesus, Jose ta Maria bategatik danak euskerie zaharra baino zaharragoa dala ta halangoak. Halandabe, holango gauzek bilddurre be emoten daurie.

Bateko, han aita edo aitte edo atxe barik ata ifinten dau. Aber oin honeik euskerologo enterauk ez bajakuz etorko euskeraz aita txarto dago ta ata esan behar dala, ze zaharragoa, lehenago-koa, jatorragoa eta romanoak ta harein ostekoak ukutu bakoa da.

Besteko, oin dala bi mile urte-edo euskeraz egitten zala konprobau de, baie, ez dago modurik konprobateko hametik berrogei urtera egingo badan ala ez? Ezpabere, etzien dekotezan Bertonen guztidxe enterraten hasiko naz, bata ta bestien artien metro bat itxitte, aber hametik bi mile urtera datozen arkeologoak topa-ten badeuriez ta baten bateri orduen osterata be emoten dotzegun alegridxe apur bet. "E, hamen Wilboland City DFn lehenago diferente egitten zeurien berba!", "Joder, hau ez dago entendenten dauenik!" Ta elegante pasauko daurie urtetan ta urtetan deszifratan ta diskutiduten,.. ze hametik bi mile urtera tendentzidxe segiten badeu jentie aburridu, aburriduko da terrible ta holango gauzek estimatekoak ixingo direz gero ta gehidxago..

Oingora bueltan barriz, romanoan asuntu honegaz be ez

doskue esan ezer lehenagotik jakin ez dogunik ganera. Oingo Bertonen hartute romanoen influentzidxe danien topau lei. Mahatserriko aldizkaridxe: Mahatsa nok ekarri zoskun ba? Santutxuko jaidxek: mahatsa gabon zaharreko zeremonidxe egitteko ez zeurien ekarri, ez. Aber jaidxek ardao barik zer ixingo zirien ba? Txosnak eta kanpamentuek: Ez dozuez ikusi Asterixen tebeoatan romanoak zelango kanpamentuek eukiezan: kanpinak, tabernak, anforak,... Obrak, kaminoak, etziek,... Hamen romanoak etorri arte nok egitten zeittuzen halango obrak? Basilikak eta santuek: han Bittoridxen topau direzenak ez dire errezuek ba? Bolsa ta ekonomidxe: romanoak etorri arte euskaldunek ez zeukien patrikerarik. Zertako? Ez dirurik barruen eroateko, ez non gastau, ez zertan gastau. Orduen hasi gintzezan kontuek egitten ta kontuekaz be bai.

Ta kontuek egindde, honeik romanoak zeaittik ikisi gure zeurien euskerie? Romanoan denboran be perfilek egoten zirien? Bertonen moduko zeozer egon zan orduen be? (eskabaten hasi beharko da ba) Bertokoeri hainbeste kostaten jakien latine ikistie? (oin euskerie ikistie hainbateri kostaten jakona ikusite, ez littike estrainateko ixingo).

Tire ba, romanotik asko dekogu, bardulotik baino gehidxao seguruen. Alea iacta est.

Firmatue: Kaio Beleio



ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarteak egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
 Iturriaga 55, 1. Ezkerra
 Tfnoa. : 944735448
 E-posta: asapala@eusnet.org



Jai gozagarriak

Santutxuko festek giro bikainaz busti dituzte auzoko kale bazterrak

Uztailaren 8an heldu eta 16an alde egin zuten Santutxuko jaiak, agindu bezala. Ederto igarri zen joan izana, giroa itogarria bihurtu baita jaiak amaitu zirenetik. Festetako bederatzi egunetan, ostera, fresko-fresko ibili ziren hainbeste mahatsorri, hala Basarrateko gerizan nola tabernetan, plazetan, barraketan,... Parranda giro polita eta une gogoangarriak eman dituzte aurtengo jaiak. Beitu, beitu...



ARGITARATZAILEA:
 Batana Batu Kultur Elkarteak

ERREDAKZIOA:
 Iturriaga 55, 1. ezk.
 Bilbo - 48004
 Tfnoa:
 94 473 54 48
 e-posta:
 berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA:
 Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
 Arrate Diez,
 Eneritz Ibarrondo,
 Nerea Aburto,
 Iratxe Ruiz,
 Dabi Piedra,
 Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
 Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
 Iñaki Berastegi
 Joseba Barrenetxea


KOLABORATZAILEAK:
 Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
 Jose Otazua,
 Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
 Koldo Urrutikoetxea,
 Arrate Diez

LEGE GORDAILUA:
 Bi-85-98

ALE KOPURUA:
 1.900



Basarrateko gau giroa, barrakak, bakailao txapelketako kazuelak eta sukaldari koadrilen poza, lo kukutxoak eta Zuberoako maskarada. Horixe dena, eta gehiago, izan dira aurtengo Santutxuko jaiak.



Ez esan ez dagoela zer aukeratua: erromeriak eta maskarada, koadrilen arteko norgehiagokak, txosna ondoko lagun artekoa, hegan egiteko sentzazioa eta bakailao txapelketa ospetsua irabaztea.


BEGOÑA ETA EUSKERA

Zer esana eman dute Arabako Iruña-Veleiako erromatar garaiko hiriko hondarren artean topatutako euskarazko idatzi laburrak. Estamentu zientifikoak astindu ditu, aurreiritzi batzuk kolokan laga eta eztabaidagai berriak ipini ditu mahai gainean. Kontua da mahatsorriok ere zipriztindu gaituela aurkikuntza horrek. Zergatik?

IRUÑA-VELEIA ETA ANTZINAKO MAHATSORRIAK

Iruña-Veleiako hiriko hondarretan aurkikuntza itzelak egin dituzte azkenaldion. Ekainean jakinarazi zuten munduko kalbariorik zaharrena bertan topatu dutela. Biharamunean, euskarazko berba batzuk ere agertu zirela zabaldu zen. Zeramika zati batzuetan ida-tzitakoak. Euskara garbian. Oraindik ere ikerketan dihardute adituek. Hilabeteak beharko dituzte noizkoak diren zehazteko. Lehenengo inpresioen arabera, III eta VI. mendeen artekoak izan daitezke.

Kontua da testu horiek Araban topatutako euskarazko testurik zaharrenak bilakatu direla, eta euskararen historiari begira, zalantza batzuk uxatu dituztela. Pruden Gartzia historialariak 'Lazarraga, Ernazimentua euskaraz' bere liburu gozagarrian argitara ekarri du gure unibertsitateetako historialari batzuek euren ikerketetan euskarari ematen dioten tratamendua. Arabako historiari buruzko liburu mardul batek euskara 'mespretxu zuzenik' gabe baina informazio kaxkarrak erabili zuela ohartu zuen. "Liburu horren emaitza euskararik gabeko Araba bat irudikatzea da. Edo, zehatzago, euskara Araban beti marginala izan dela", laburbildu zuen.



Horrela, liburu horretan erromatarren sasoiari Araba "sakonki indoeuropartuta" zegoela irakurriko dugu, eta "oso litekeena dela biztanleek hizkuntza indoeuroparren bat hitz egitea". Atal horretan euskarari aipurik ere ez. Jakinaenez, gurea, aurreindoeuroparra da. Ez ei zen euskararik egiten Araban sasoi hartan, eta liburu osoa irakurri ezker, hurrengo mendeetan ere gutxi. Hertzainak taldea aipatu zuten liburuan bere kantuen hizkuntza zein zen behin ere esan barik.

Araba diogu, baina berdin esan genezake Bizkaia. Edo Gipuzkoa. Harrigarria bada, gurea gaur egun ere hein handi baten herrialde euskalduna delako. Hemengo periodikorik salduenak orain gutxi Bilbo sortu

aurreko Bilboaldeko biztanleen gaineko artikulua bat plazaratu zuen. Kristo aurreko 2000 urtetik Kristo osteko 1300 urtera arteko bitartea aztertu zuten eta hizkuntzak aipatu bazuten ere, behin ere ez zuten ez euskara ezta euskaldun edo 'vasco' berbarik erabili. Ez ei zen euskararik Bilboaldean 1300 urtea baino lehen. Hortaz, ez gara titularrarekin harrutuko: "Bilbao antes de Bilbao. La historia del valle del Nervión comenzó hace 5.000 años y está marcada por indoeuropeos y romanos". Tori kos-



mopolitismoa! Euskaldun kaikuen arrastorik ez.

IRUMUGARRIETA

Testu horretan lehenengo mahatsorriak aitatu zituzten, Kristo aurreko 2000 urtean Artxandako trikuharri eta tumuluak (Gaztelukolanda, Irumugarrieta...) eraiki zituztenak alegia. 'Indigenas' zirela bai, besterik ez. Gero indoeuroparrak heldu ei ziren, euren hizkuntzekin, eta batzuei hainbeste gustatzen zaien Nervión izena laga ei zuten. "Con el paso del tiempo, su lengua -la indoeuropea- iría fragmentándose en el español, el inglés, el italiano, el alemán... hasta un total de 150 idiomas que hablan en la actualidad 3.000 millones de personas". Hori marka, 3.000 milioi!

Araba edo Bilbo aldearen euskaldun izaera historikoa ukatzeko babes teorikoa Claudio Sanchez Albornozek eman zuen lehenengo. Haren ustetan, benetako euskaldunak -baskoiek, hots, nafarrek- Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba 'euskaldundu' zuten. Ateraldi horri Koldo Mitxelena moztu zion bidea, gurdi bete arrazoi zientifikoez. Hala ere, azken hogeitau urteotan berriro eta modernizatu dute, esanez ba ze, Akitaniatik etorri zirela euskaldunak VI. mendean Hegoaldera. Horretarako frogan nagusia da ez dutela sasoi horren aurretiko testurik inon topatu, ez euskaraz ez beste hizkuntzetan. Nafarroan,

bestea. Bada, berdin bizkaitar eta gipuzkoarrek.

Umoretsu amaitzeko, horra perla bi. Lehenengo euskaldunak Hegoaldera Akitaniatik etorri zirela diote 'berantiar euskalduntzearen' defendatzaileek. Baina Frantziaren euren tankerakoek diote ba ze euskaldunak Akitaniara Hegoalderatik heldu zirela. Bigarrena. Orain dela urte batzuk Unidat Alavesakoek elkarte bat sortu zuten Arabako gaztelaniaren defentsan eta euskara arrotzaren inposaketaren aurka. Ezetz asmatu izena: Veleia!!!



Kalderapeño
euska! kultur gunea

www.kalderapeño.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

BOLUETAKO JUBILATUEN ELKARTE DINAMIKOA

Txango, ikastaro eta ospakizun ugari egiten dituzte urtean zehar



Beraien izen ofiziala Santu-txu-Boluetako Jubilatuen elkarte bada ere, Boluetako Cocherito de Bilbao kalean dute egoitza, lehen Boluetako haur eskola izandako tokian. Elkarte hau 1991an sortu zen eta egun 375 kide ditu. Elkar-tean hiru lehendakari egon dira orain arte, Mauro Garcia, Txaro eta Jose Angel, hain zuzen. Jose Angelek bederatzire urte darama lehendakari modura eta berarekin bildu gara elkar-tearen berri izateko.

Testua: *Arrate Diez*

Argazkiak: *Boluetako Jubilatuen Elkarte*

Uda partean itxita dago baina irailetik aurrera hainbat ekimen jarriko dituzte martxan berriro ere. Hastean bi aldiz gimnasia ikastaroak daude, eta ikastaro bakoitzeko hogeita bost pertsona daude. Astearteetan hogeita hamabi kide dituen 'Boluetako jubila-tuak' izeneko abesbatzak du entsegua. Asteazkenetan, eskulan ikastaroa eskaintzen dute eta bertan larrua, artilea, teila, egurra zein margoekin egiten dute lan. Ostegun eta ostiralean memoria lantzeko ikastaroak daude, lau memoria ikastaro zehazki.

Boluetako jubilatuen egoitzakoek Bagabiltza elkar-tearekin konpartitzen dute lokala, baina bakoitzak bere txokoak ditu. Jubilatuek ekitaldiak egiteko zein kartetan jolasteko gela handi bat dute -haiek

aisialdirako gela deitzen diote- eta bertan taberna ere badago. Ondoan beste gela txikiagoak dituzte, bilera gela, bulegoa, ordenagailu gela eta sukaldia.

Ordenagailuekin ibiltzeko lau ikastaro mota eskaintzen dituzte asteko lau egunetan. "Ikastaro asko daude, batzuk Internet, beste batzuk argazkiekin ibiltzeko... mailaka sailkatuta daude eta lau urte dira ikastaro hauekin hasi ginela. Beraz, badago nahikotxo kontrolatzen duenik", esan du Jose Angel Masa elkarteko lehendakariak.

TXAPELKETAK

Honez gain, urtean zehar (urritik urtarrilera) tute, mus, domino eta briska txapelketak antolatzen dituzte. Larunbata, igande eta jai egunetan dan-



tzatze aukera eskaintzen du zentroak. Eta txangoak ere antolatzen dituzte nahi duen bazkidearentzat. Jose Angelen esanetan "hainbat txango egiten dugu urtean zehar eta maiatzean bertan bederatzire eguneko txangoa antolatu genuen; batzuk egun bakarrekoko dira baina urtean behin egun batzuetakoak antolatzen ditugu".

Gabonetan ere urtero bazkari bat egiten dute. Iaz Casa Vasca jatetxera joan ziren, Deustura, eta oso pozik geratu zirela aitortu dute. Inauterietan ere mozorroak prestatu eta bazkaria egiten dute, eta uztailean kurtso bukaerako jaialdia ospatzen dute, luntxa eta musikarekin. Urtero ere urrezko ezkontzak betetzen dituzten senar-emazteei orotzapen plaka bat oparitzen zaie elkar-tearen eskutik eta gabonetako bazkarian ematen zaie.



Boluetako egoitza honetan bil-tzen den abesbatzak berezko him-

noa du eta hainbat ekitaldi eskaini ditu.

EHUN LAGUN ZAIN

Jubilatuek urtero hamar euroko kuota ordaindu behar dute eta zuzendaritza batzordea ere badute. Batzordean bederatzire pertsona daude: lehendakaria, lehendakari-ordea, idazkaria, idazkari-ordea, diruzaina eta lau batzordekide. Batzordean gaiak azaldu eta erabakiak hartzen dira. Jubilatuek Cocherito de Bilbao dute egoitza hau barrizteko asmoa dute eta abuztuan margotuko dute.

Boluetako jubilatuek hala ere, dute egoitza oso txikia dela diote, izan ere, ehun bat jubilatuek daude itxaroten beren lekua izan dezaten elkar-tean. Horregatik Bilbo-ko Udalari leku handiago bat uztea eskatzen diote, ez baitago lekurik denentzat.



Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

OPORRAK HIRITIK IRTEN GABE

Bilboko Udalak hiri koloniak antolatu ditu uztail eta abuztuan



Bilboko Udalak antolatuta eta Eragintza Kultur Elkarteak kudeatuta, aurtengo hiri koloniek 850 ume inguru ekarri dituzte Begoñako Errepublika zaharrera. Luis Briñas, Pio Baroja, Zurbaran eta Zurbaranbarriko eskoletan, euskaraz eta gaztelera egiten diren hamar eguneko hiru txanda ezberdinetan, ume hauek hiria eta uda modu ezberdin baten gozatzeko aukera izango dute.

*Testua: Nerea Aburto
Argazkiak: Iñigo Azkona - Nerea Aburto*

Mendiak bere xarma badu, ezin da ukatu, hondartzak ere kostaldeko enkantua eskaintzen du, eta zer esanik ez munduak bidaia agentzietako iragarkietan erakusten dizkigun hiri, bazter eta paraje guzti horiek. Baina Bilbotik irten barik, are gehiago, Mahatserrian bertan, uda ondo pasatu daitekeela ukatuko duenik ez da egongo, behintzat, Bilboko 850 ume, Bilboko Udalak antolatutako udaleku irekietan zelan pasatzen duten irakurri eta gero.

Uztailaren 200 plaza gehiago eskaini ditu eta, guztira, hilabete eta erdiz, Bilboko Luis Briñas, Pio Baroja, Elexabarri, Zurbaran, Zurbaranbarri eta Pagasarribide eskoletan, 1.150 ume inguruk parte hartuko du gure jardueratan".
Uztailaren lehen hamabostaldian, 500 haurrek euskaraz eta 100 haurrez gaztelaniaz eta bigarren hamabostaldian, euskaraz 300 haurrek eta gaztelaniaz 100ek hartu dute parte. Abuztuko lehen hamabostaldian, aldiz, parte hartzen duten 150 haurren artean, 100ek euskaraz eta 50ek gaztelera egiten dute. Guzti hauetatik, Mahatserriko eskoletan 850 ume inguru izango dute uda ezberdin bat gozatzeko aukera; horietatik 250 gaztelera eta gainontzeak euskaraz. Ainhize-



ren esanetan, landu nahi dituzten helburuen artean batez ere haurrek ondo pasatzea badago ere, ez dituzte lankidetzaz, talde-lana, edo berdintasun eta tolerantzia balioak ahaztu nahi.

ONDO PASA
Santutxuko Luis Briñas eskolan, uztailean udalekuetako arduraduna izan den Iera Arantzamendik hamar egunetan zehar 7 eta 8 urte bitarteko 96 umeekin egin dutena azaltzearekin bat arrakasta honen arrazoiak eman dizkigu.

Udalekuetako lehen egunean izan ezik (orduan eskola, begiraleak eta beste haurrak ezagutzen ematen dute eguna), eguraldiak laguntzen duen guztietan igerilekuetara joaten dira goizez. Arratsaldean, irteerarik ez badute behintzat, eskolan, balore ezberdinak lantzen dituzten jolasak izaten dituzte; horrela, ardatz modura generoen arteko berdintasuna edota munduko kultura aniztasuna eta mitologia dituzten jokoa proposatzen zaizkie haurrei.

Uda heltzen denean eguraldi txarra izatea inori ez bazaio gustatzen, udalekuean egonda ez du arazo larregi ekartzen, eskola barruan igaro behar dituzten egun horietan umeei asko gustatzen zaizkien tailerrak egiteko aprobetxatzen baitute. Aurtun, adibidez, igerilekura joateko eguraldi aproposa egon ez den egun horietan, eta batzuk izan dira, musika tresnak egin dituzte: turutak, marakak, tinbala,...

Astean behin, Bilbotik irten eta, bokatak hartuta, hondartzara edota urtegiren batera joaten dira. Antzerria egiten dute Bilboko Arte Ederretako museoan pasatzen duten arratsaldean, bertan, bi taldetan banaturik, bertako margolan batzuk eta



ondoko parkean dauden zuhaitz eta landare bitxiak ezagutzen ematen dute denbora. Seguruenik, askorentzako, museo bat bisitatzen duten lehen aldian izango da hau, eta baina alda modu hobea irerileku, hondartzak, museo edota urtegiak ezagutzeko, lagun artean eta oporretako giro beroan baino?



Baina, gaur egun haur eta gazteei zuzendutako udako proposamen gehienek ekintza izar bat (zaldiak, eskalada, bizikleta,...) izaten duten bitartean, harrizkoa da Luis Briñas, Pio Baroja edota Zurbaran eta Zurbaranbarriko eskoletako haurrek horrelako ekintzarik gabeko udalekua bukatu eta primeran

pasatu dutela esaten dutela jakitea: "Horrelako ekintzaren bat izatea ona izango balitz ere, gure helbururik nagusia lortzeko ez da horrelakorik behar derrigorrez eta horren frogara argia da urtero errepikatzen duten hainbat ume daudela", esan du lerak.

Udaleku hauetara joaten diren umeen perfilak oso ezberdinak izaten dira, eta horrela, auzo zein kultura edo erlijio ezberdinetako


PERTONDUGU

ERTONDUGU

Agapi
Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak
Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko herriko taberna Iturriaga 96.
Gosari bereziak: Kateda + pinxtoa 1,50 €.
Euskal Herria AURRERA!!

Garaizar
JESUS GALINDEZ, N° 10
TELF: 94 473 02 25 - GARAIZAR - BILBO



umeak biltzen dira askotan. Ez da arraroa, horregatik, Deustua, Zorroztza, Indautxu, Errekalde edo Bilbo-ko beste auzo askotako umeen artean, udalekuak burutzen diren Mahatserriko eskoletan beste herrialde batzuetan jaio eta dagoeneko bilbotar bihurtu diren umeak aurkitzea. Jatorri ezberdintasun honek aberastasuna suposatzen duen bezala, antolakuntzan kontutan hartu beharreko aldaketak behartzen ditu ere, eta horregatik, adibidez, bazkaltzeko menu musulmana zerbitzatu izan dute beharrezkoa izan denean. Hezkuntza eta behar berezietako haurrek ere udaleku ireki hauetan parte hartze-ko aukera izaten dute eta halakoetan begirale bereziak osatzen dute ohiko begirale taldea.

BEGIRALEAK ERE

Luis Briñaseko udalekuetan 21 eta 26 urte bitarteko 8 begirale daude. Denak astialdiko begirale titulua eta astialdian esperientzia nahikoa dute, batzuk hiri udaleku hauetan hartutakoa. Haien artean banatu dituzte bigarren hamabostaldian egon diren 96 umeak, eta eurekin batera, esan beharra dago, primeran pasatzen dutela ematen du. Behintzat, kexarik ez dute, eta haurrekin harreman ona dutela eta egunak arin pasatzen direla aitortzen dute.

Baina udaleku irekiak izatea bere alde txarrak omen ditu, eta

haurrak bertan gaua ez pasatzea esperientziari aberastasuna kentzen omen dio: gaubelek, batera lo egitea,... udaleku itxiek duten xarma irekiek ez daukate, antza.

EUSKARA HOBETZEN

Luis Briñasen dauden ume gehienak B ereduan ikasten dute eta horrek euren euskara maila oso ona ez izatea suposatzen duenez, begiraleek ahalegin berezia egin behar dute eurekin ematen dituzten egun hauetan, eskolaz kanpoko esparru honetan euskara ere erabili eta hobetu dezaten. Horretarako, adibidez, oso baliagarria izaten zaie bazkaldu eta gero ludotekan ematen duten denbora, ume kopuru oso handi ez batekin pul-tserak, marrazkiak edota mahai jokoetan euskaraz aritzen baitira. Berdin egunero betetzen duten postontziarekin; umei izugarri gustatzen omen zaie bertan euren marrazki, proposamen, kexa edo txutxu- mutxuak idaztea, beti euskaraz, hori bai!

Udalekuaren lehenengo asteko azken egunetarako ume guztiak pozik daudela esaten dute, baina, hasieran, udalekuetara derrigortuta datozen zenbait haurrek arazoak izaten omen dituzte erritmo eta jende berrira egokitzeko. Hain zuzen, udaleku irekien antolakuntzak, uztailean lan egin behar duten gurasoei irtenbide bikaina eskaintzen die eta askotan, etxean nogaz gelditu ez daukaten, haurrek betetzen dituzte udalekuak. Baina egunak aurrera doazen heinean ume denak egokitu egiten dira eta egunak etxean lagunik gabe pasatzea baino nahiago izaten dute udalekuetan lagunekin batera ibili, gero etxeko gozotasunera bueltatuko direla jakinik.

Eta, antza denez, honek beste arazo batzuk suposatzen dizkie begiraleei, hain zuzen, arratsaldez etxera joango direla jakinik, zenbait ume ez dituztelako guztiz ondo betetzen udalekuak dituen arauak. Baina guzti hau onartuta ere, irribarrerik ez dute gal-tzen begirale hauek eta hori baieztatzeko arratsaldean puzzlearen jolasa umeekin batera egiten ikustea baino ez dago, zaila da margotua-go zeintzuk dauden asma-tzea.

ETA HAURREK

Zalantza barik haurrak dira orain arte kontatutako guztiaren protagonista nagusi-nak, eta hau hola izanik, zer diote eurek? Besteak uretan dauden bitartean, begiraleen ondoan eserita dagoen Haritzek udalekuetatik gehien gustatzen zaiona igerilekuan ematen duen denbora dela esan du; Yannek ez ordea, berak, antza denez, futbolearen aritza du gogoko-en, batzuei berdin zaie uda ala negua izan, argi dago.

Deustuko Beatriz, Sofia eta Andreak aldiz hondartzan picnica egitea oso gogoko izan dute, eta Indautxuko Ane eta Maitek, eta Errekaldeko Yurenak, horrez gain lagun berriak egiteko izan duten aukera aipatzen dute. Zer esanik ez denek aipatzen dituzten ur jolasak edota ludoteka orduetan egiten dituzten marrazki, pultsera eta abar-rekoak. Denek argi dute udalekue-tan ondo baino hobeto pasatzen dutela!

JOSE ANTONIO DIEZ ALDAY

“Bizitza osoa kazetaritzan eman dut, ez dut uste guztiz erretiratuko naizenik”

e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

Jose Antonio Diez Alday Bilbo Zaharreko Maiatzaren 2a kalean jaio zen 1945ean. Bertan bizi izan zen 22 urte bete zituen arte. Orduan mugitu zen Santutxura. Ezkondu eta bi seme izan zituen. Aurkitu zuen auzoa gustukoa zuen eta poztasunez gogoratzen ditu garai hartako landak eta txakolindegia. Mahatsorri onen antzera, Karmengo jaietan makailo txapelketan parte hartu duela aitortu digu. Baina ezaguna egingo zaizue bere lan ibilbide aberatsa delako. Ikasketa teknikoak hasi zituen, baina Leioako kazetaritza eskoletara pasatzea aukeratu zuen. Deia egunkarian kiroletako arloan hasi zen, eta gaur irratian ekonomia (Radio Euskadi) eta elkarrizketak (Radio Vitoria) jorratzen ditu.

Testua: Iratxe Ruiz.
Argazkiak: Iñigo Azkona

Berton: Izatez Bilbo Zaharrekoa zara baina gaztetxo zinenean Santutxura etorri zinen, Mahatserrira...

Maiatzaren 2a kalean jaiotakoa naiz. 22 urte nituela familiarekin Santutxura bizitzen etorri nintzen. Beraz, urte mordo daramat auzoan.

Zelako auzoa topatu zenuen?

Gogoratzen dut Santutxu kalea oso estua zela eta txakolindegia ugari zeuden. San Frantziskito ondoan zegoen txakolindegira -Parritara- igelean jolasten joaten ginen. Eta jakina, fraideen ortua, mundiala zen! Larunbat arratsaldetan frontoira jolasten joaten ginen. Eraikin gutxi eta berriak zeuden...

Gaur egungo auzoarekin zerikusi gutxi zuen, beraz...

Egungo Santutxu gustatzen zait baina pena ere ematen dit. Txurdinagako parkea auzoarentzat birika da. Baina ez dago berdegunerik. Fraideen ortuan landa egon ahal zen gaur egun. Baina etxebizitzaren negozioa denentzat da, nahiz eta jazki beltzak jantzi! Porlana nonnahi dago. Santutxuk 60. hamarkada bukaeran zuen izaera, xarma hori galdu da. Badakit Parrita moduko txakolindegia gaurko auzoan bizi irauterik ez duela, baina aldaketa hain izan da sakona!

Mahatserrira etorri zinen garai hartan ikasten ala lanean zeunden?

Siderurgiarekin harremana zuten arloak ikasi behar ziren belaunaldi hartakoa nintzen. Peritu industrial ikasten hasi nintzen, baina ez nintzen oso trebea. 'General Eléctrica Española' delakoan ikastun ibili nintzen, gero elektrikari gisa beste urtebete eta ostean ingeniari zena enpresa batean hasi nintzen.

Karmelo elizan aldizkari bat argitaratzen genuela gogoratzen dut, bai. 'Distrito 4' izena zuen, eta azalean elizaren irudia agertzen zen. Geroago, 1978an Deia egunkarian hasi nintzen. Urte hartan Leioako unibertsitatean Informazio Zientzietako unitatea jarri zuten, eskaria ugaria zelako. Kazetaritza ikasten hasi nintzen eta Deian kolaborazioak egiten nituen aldi berean.



Ze arlo jorratzen zenuen Deian? Kiroletan hasi nintzen. Nire lehengo informazioak arraunari buruzkoak izan ziren. Zorionez, Santurtziko Soteraren eta Kaikuren Bizkaitarren urrezko garaia zen. Denboraldia laburra baina oso bizia zen, zoragarria! Gero ekonomiara pasa ninduten.

Zortzi bat urte geroago egunkaria utzi eta aldizkari egitasmo batean murgildu zinen.

Bai. EITBko zuzendaria zen Jose Mari Gorordorekin kolaborazioak egiten nituen, eta Telebista aldizkaria kaleratzea proposatu zidan. Harrez gero hamaika lan egin ditut! Madrilerira joan nintzen informazio agentzia

bat zuzentzera, irudi enpresa batean egon nintzen, gero Lehendakariaren eta Gasteizen 'Periódico de Alava' argitaratu genuen. Atal bat zuzendu nuen, Radio Euskadi eta Radio Vitorian esatari lanetan hasi nintzen arte.

Prensa idatzian urte asko eman ondoren erraza izan zen irratirako saltoa?

Zaila izan zen. Egunkari batean hogeita hamar lerrotan kontaktatu duzuna hiru lerrotan esan behar duzu. Radio Euskadin ekonomia jarduten dut eta Radio Vitorian elkarrizketa saio bat daukat.

'Conversaciones' ez da elkarrizketa tarte arrunta. Zergatik?

Giro intimista duten elkarrizketak egiten saiatzen naiz. Sakonak diren arren, solaskidearentzat nekagarriak izan daitezkeen gaiak ez ditugu aipatzen. Berbaldi goxoa, arina, lasaia lortzea da helburua, sentsazionalistotik urrun. Saioak asko lasai-tzen nau eta aberasgarria da niretzat. Irailan bosgarren denboraldia hasiko dugu, 'Conversaciones Solidarias' izenpean.

Gizarte, politika, kultura eta kirol munduko berrehun bat pertsona izan dituzu mikrofonoan aurrez-aurre.

Gainera solasaldi bakoitza zeharo desberdina izan da. Bernardo Atxagarekin ez genuen literaturaz hitz

egin. Politikariekin ez gara politikaz mintzatzen. 'Conversaciones' saioan berba egiten da, ez dago galdera erantzunik. Aurrean dudaren pertsonaren sentimenduak igertzen saiatzen naiz. Eta bakoitzak asko irakasten dizu.

Literatura barik, zeri buruz hitz egin zenuen Bernardo Atxagarekin?

Bere bizitza kontaktatu zuten testuak irakurtzen saiatu nintzen. Bere bizitzan kapitulu deigarria deskubritu nuen. Zerbitzu militarra betetzen zegoen garaian zakarrontzian Marimé poeta frantsesaren bertsoa aurkitu zuen, arkatzez idatzita. Marimé bitxia zen ix eta xi errima erabili ohi

zuelako. Eta hara, Atxaga gaztetxo zenean asmatu zuen lehen bertsoa ix errima izan zuen: 'La mujeres de Guadix tienen los ojos mas bellos que un onix'. Holako zer edo zer izan zen. Atxaga Marimeren jarraitzailea da, eta kasualitate horrek txunditu zuen idazlea. Gai hau izan zen gure arteko elkarrizketaren haria.

Eta Lehendakariarekin ordubete eman zenuen berbetan politiko hitza aipatu barik!

Gazte zeneko anekdota bitxia dauka lbarretzek. Laudiotik vespa batean Gasteizko Gobernu militarra joan behar izan zuen presaka euskal jaialdi batean abestuko zituzten abestien itzulpena aurkezteko. Diktadura garaian baimena eman behar zizuten. Justu-justu heldu zen ordura, baina etxerako bidean motorra hautsi zitzaion. Pertsona orok beti du ezkutuan bizipen edo anekdotaren bat. Berau antzematea da egin behar dena! Hori bai, adibidez, Josu Sobriorekin ezinezkoa da Hegoameriketako hainbat herrialdeek bizi duten egoera latzez ez mintzatzea. Saihetzina da.

Nork harritu zaitu gehien?

Hein batean edo bestean elkarrizketa denek harritu naute. Esaterako, Jose Luis Lopez Sosoaga Gasteizko gozogile bat da. Bihotzeko pertsona bat da, eskuzabala eta berak bizitzeko duen filosofia ikaragarria da. Hamabost elkarrizketa biltzen zituen liburua argitaratu genuen. Bertan zeuden Eroskiko presidentea, pentsamendu kooperatibista izugarria duena; Juanma Bajo Ulloa; Toti Martínez de Lezea...

Jose Antonio Diez Aldayri elkarrizketa alternatiboa egiteko, zeren inguruan izan beharko zen?

Nirekin gauza gutxiren inguruan, kar, kar! Kazetaritzan gai asko jorra daitezke espezializatu barik. Gaurkotan agintzen du. Hitz egin genezake, agian, nire gustuei buruz. Margotzea eta klarinetea jotzea gustatuko litzaidake. Mozarten klarineterako kontzertua entzun eta gero heldu nintzen ondorio honetara. 'Memorias de Africa' pelikulako doinu banda da.



Klarineta jotzen ikasteko astirik ez duzu izango zure zereginak goizeko seietan hasten baitira...

Egunero goizeko seietan jaikitzen naiz. Interneten burtsaren gorabeherak aztertzen ditut eta 7,30 lehenbiziko konexioa dut irratian eguneko iragarpena kontatzeko. Halaber, euskal enpresari buruzko tartetxoa daukat, gero aipatu dugun Gasteizko irratsaioa... baina lasai bizitzeko denbora libre badut!

Oporretan eritimoa jaitea zaila egingo zaizu!

Gaitza da, bai. Baina erretiratzeko garaian pentsatzen dudanean ez dut uste erabateko 'inakzioa' izango dudarik. Aurrez zehaztutako ordutegiarekin amaitzea gustatuko litzaidake, noski, goizeko seietan jagi ahal izateko gaueko hamarretan oheratu behar dudalako egunero. Lotuta nago. Hori bai artikulua edo iruzkinak idazten jarraitzea ez dut alde batera uzten. Lan honetan ia 30 urte eman ostean zaila litzateke guztiz erretiratzeari!

Zer da egiteke duzun hori?

Datorren urteari begira, nire ilusioa Europako Batasunari buruzko saioa izatea litzateke. 2007ko martxoan 50.

"SANTUTXUKO JAIK LEHEN PARTEHARTZAILEAGOAK ZIREN"

"Santutxuko jaiak oso partehartzaileak ziren. Makailo txapelketaren ostean denon artean bazkatzen genuen kalean. Nire ustetan, ez bakarrik Santutxuko jaiak, jai denek behar dute berrikusketak eta autokritika bat. Jaiak ez da eskusiboki gazteentzat, nahiz eta gazteek jaiak dinamizatu. Jaiak ez dute alkohola eta musika soilik izan behar, baina argi dago egon behar dutela.

Jaien benetako esentzia galdu dugula uste dut: auzoak Karmen eguna ospatu behar duela. Gabonetan elkar zoriontzen dugu, zergatik ez anaitasun hori jaietan berreskuratu?"

urtea beteko da Erromako tratatua sinatu zenetik. Baina epe luzerako helbururik ez dut. Baliteke 2008an zer edo zer gogoko izatea...

Zortzi galdera labur

Hobby bat: idaztea

Liburu bat: Ensayos sobre la lucidez

Abesti bat: Ne me quittes pas

Disko bat: Mozarten klarineterako kontzertua

Janari bat: Solomotoxa plantxan foie freskoarekin

Amets bat: Bakea

Oporretan joateko leku bat: Loira

Aurtengo oporrak: Loirara nabigatzera

Puntuakako gida baimenaren lehenengo asteetan istripu gutxiago izan dira. Horrela segituko da?

4

IRATI
(SANTUTXU)

NIRE USTEZ ISTRIPU ASKO IZANGO DIRA, BAINA KARNET GUTXIAGO. KARNET PILO BAT KENDUKO DUTE BAINA HORREK EZ DU EZERTARAKO BALIOKO. DIRUA ATERATZEKO BAINO EZ.




PATRIZIA
(SANTUTXU)

LEHEN BEZALA JARRAITUKO DUGU. ORAIN JENDEA IKARATUTA DAGOELAKO BAINA LASTER BELDUR HORI PASATUKO DA ETA LEHENGO MODUAN IBILIKO DA.


ASIER
(TXURDINAGA)

BAI. ORAIN ISTRIPU GUTXIAGO DAUDE ETA HORRELA SEGITUKO DU. JENDEAK SERIO HARTU DU. NIK ORAINXTX ATERA DUT KARNETA ETA ONDO IKUSTEN DUT.



DAVID
(OTXARKOAGA)

BAI. LEHEN BAINO ISTRIPU GUTXIAGO IZANGO DIRA. ORAIN ISUN EKONOMIKOAZ GAIN PUNTUAK GALTZEN DITUZU ETA ERRAZA DA GALTZEA. BERAZ, SERIO HARTU BEHAR DA.



8

RICARDO
(SANTUTXU)

ORAINDIK EZIN DA SINISTEKO MODUKO ESTADISTIKARIK EMAN. ISTRIPU GUTXIAGO IZAN DIRA BAINA KASUALITATEA IZAN DAITEKE. HALA ERE, NI BAIETZEAN NAGO, ISTRIPU GUTXIAGO IZANGO DIRELAKOAN.



AINHOA
(BOLUETA)

ORAIN DENAK BELDUR GARA, BAINA GERO LEHENGO MODUAN IBILIKO GARA BERRIZ ERE. ABIADURA MUGAK ERE HASIERAN DENEK ERRESPEATZEN ZITUZTEN. ETA ORAIN...



TEO
(SANTUTXU)

ORAIN NOBEGATIK DA. BAINA LASTER HORI PASATUKO DA ETA LEHENGORA BUELTATUKO GARA. ISTRIPUAK, LEHEN BEZALA.



ESTITXU
(URIBARRI)

MANTENDUKO DA. JENDEA HASTEN DENEAN PUNTUAK GALTZEN KONTU GEHIAGOREKIN DABIL. NIRI LAGUN BATI PASATU ZAIO: ALKOHOLEMIA KONTROL BATEN LAU PUNTU KENDU DIZKIOTE ETA ORAIN KONTU GEHIAGOZ DABIL.



Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Otxarkoagako 'Gautxori' autobusa da bidaiari gehien irabazi duena 2006ko lehen erdialdean

Bilbobusaz gain, Artxandako funikularrak ere erabiltzaile gehiago hartu ditu

Bilboko garraio publikoan nabarmen hazi da 2006ko lehenengo erdialdean. Horixe da Bilboko Udalak emandako datuetako ondorioa. Bilbobusek iaz baino pertsona

gehiago eraman ditu, hamalau milioi denetara. Artxandako funikularrak eta Salbeko igogailuak ere bidaiari gehiago eduki dituzte.

Bilboko Udalak uztailearen akabuan jakinarazi ditu Bilbobus eta beste garraio publikoen balantzea. Aztertutako epea 2006ko lehen sei hilabeteak izan dira eta emaitzak aurreko urtekoak baino hobetoak dira. Bilbobus zerbitzuaren kasuan, urtarrila eta ekaina bitartean hamalau milioi lagun eraman zituen. Datu hori iazkoa baino %3,74 altuagoa da. Sei hilabete horietan 510.000 bidaiari irabazi ditu Bilbobusek.

Hilabeterik ibilienak martxo eta maiatza izan ziren. Gutxien erabilitakoa, ostera, apirila, aurton Aste Santuko oporrak hil horretan egokitu dira eta.

Datuok ikusita, Bilboko Udaleko arduradunak aurten markarik onenak hautsiko dituztelakoan daude. Horrela balitz, Bilbobusek 2006an 28 milioi lagun eramango ditu.



Lerroz lerro aztertuta, Plaza Biribila eta Otxarkoagaren arteko autobusa da gehien hazi dena. Jakina, auzo hori erdiguinetik urrutien dagoenetako bat da eta, gainera, metro, tranbia edo trenik ezean, autobusa da bere garraio publiko bakarra. Gaueko erabiltzaileentzat, aukera polita da, taxia edo etxerako paseoaren aurretik.


FUNIKULARRA

Artxandako funikularra be polito hazi da 2006ko lehenengo erdialdean. Denetara, 240.000 pertsona igo edo jaitsi zituen funikularrak, iaz baino %7 gehiago. Funikularrak maiatz eta ekainean eraman du jende gehien, batez ere Doniene gauean. Egun

horretan 7.000 lagunek erabili zuten. Argi dago eguraldi onak eramaten dituela bilbotarrak Artxandara.

Salbeko zubiko igogailuari dagokionez, 2006ko lehenengo sei hilabeteetan 110.278 lagun igo edo jaitsi dira bertatik. Kasu horretan, igoera motelagoa da, %1,9koa hain zuzen.

Hala funikularrean nola Salbeko igogailuan, erabiltzaile gehienek creditrans txartela erabili izan dute. Funikularren kasuan, %68k horrela egin du bere ordainketa. Salben, are gehiago, %83 hain zuzen ere.



LAMIKIZEN KONTRAKO SINADURAK.-

Fernando Lamikizen kontrako zentsura mozioa aurkezteko firmak batzen dabilta azkenaldion Bilbon. Ideia madrildar bazkide batena izan da. Sinadurak emateko aukera dago Begoñako errepublika zaharreko taberna bitan: Trauku kaleko Aketze tabernan eta Erkoreka plazako Erkoreka kafetegian. Sustatzaileak esan duenez, laster lortuko ditu behar adina firma.

SANTUTXUKO JAIETAN EMAKUMEAK ERASO DITU GIZON BATEK.-

Santutxuko jaietako gau baten gizon bat ibili zen Basarrate inguruan emakumeak jazaritzen. Besteak beste, neskatilak komunetara joaten zirenean atzetik segika abiatzen zen eta kanpaia jotzen hasten zen. Emakume talde batek argazkiak egin eta hurrengo egunean kartelak paratu zituzten egin zuenaren berri emanez, bere erretratu eta guzti.



CARLOS PANERA, SARITUTA.-

Carlos Panera Mendieta mahatsorriak zuzendari onenaren saria lortu berri du Midlandeko (Texas, AEBak) nazioarteko antzerki jaialdian. Panera Maskarada konpainiaren 'Picasso 1937, historia del Guernica' antzezlanaz zuzendu du. Obra horrek, gainera, beste hiru sari jaso ditu: obra onena, interpretazio onena eta eszenografia onena. Obra hori Ameriketara estreinatu eta gero, Madrilera antzeztu behar dute. Euskal Herrian, abenduaren 4an aurkeztuko dute Arriaga antzokian.

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos y Presupuestos

J. Ruiz

Instalador Autorizado

*Obras, mantenimientos y reparacion de instalaciones
*Acumuladores, tarifa nocturna y calefaccion bajo consumo
*Porteros automaticos y videomoveros
*Aire acondicionado

Juan de Gissola nº9 Loria 48004 Bilbao Fax:944111652-Tlf:636703853

BI-96.0-FM

Bilbo Hiria irratia

www.bilbohiria.com

ABUZZTUA

MALLORKA	321 Euro
TENERIFE	412 Euro
MAROKO	399 Euro
TUNEZ	325 Euro
ISTAMBUL	489 Euro

mikelizargi@euskalnet.net

Izargi Bidaiak

GRUPO STAR

Iturriaga, 69
www.ibiltari.com Tel. 94 473 00 45
Fax 94 412 07 38
48004 SANTUTXU - BILBO

★

KAIKU

Mundako Herrien Bera

Arsuaga 1 Santutxu

ADI

ASESORIA FISCAL, CONTABLE, LABORAL, JURIDICO-MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

Autobidea kale bilakatzen hasi da

Begoñako errepublika zaharra mutur batetik bestera zeharkatzen duen ardatza itxuraz aldatzen hasi dira. Salbetik hasita Santutxu eta Txurdinagaraino, autobidea zena kale eta boulevard bilakatu da. Obrak zatika egiten ari dira. Maurice Ravel eta Zumalakarregi etorbidea ez ezagutzeko moduan geldituko dira.



SALBEKO ZUBIA.- Salbeko zubia asfaltatzeko aprobetxatu du Foru Aldundiak udako sasoi. Zubiko zorua zeharo zaharberrituko dute. Premia bazegoen, auto gidariak aspalditik eskatu izan dute-eta.



MAURICE RAVEL.- Salbetik Trauku arteko zatian ere lanak hasita daude. Oraingoz erdiko hesia kendu eta Uribarriko aldean espaloiak zabaldu eta lur azpiko hodiak aldatzen ari dira.



TRAUKU.- Maurice Ravel eta Trauku arteko bidegurutzean ere obrak nabarmenak dira. Traukutik Begoñara, oster, ez dira hasi. Hori izango da proiektuaren zatirik zailena eta besteak amaitutakoan hasiko da.



ZABALBIDE.- Begoñako tuneleko alderdi banatan obrak hasi dituzte, Zabalbideko bidegurutzeraino. Hor biribilgune bat ipiniko dute. Tunelak orain gutxi konpondu zituztenez, tunel barruan beheko zorua bakarrik aldatu behar izan dute.

Larreagaburuko azken zatia amaitzekotan dago

Andaluziar estiloko etxe baxuak dira, aldatsean eztrandakoak

Larreagaburu auzo berriko azken zatia nahikoa gorpuztuta dago proiektu osoaren itxurak ederto baten igartzeko. Oraintsu amaitzen ari diren etxebizitzak gurean gutxitan ikusten diren horietakoak dira, etxe baxuak baitira eta behealdekoak goiko aldekoen euskarri gisa diseinatuta daude.

Larreagaburuko (Mina del Morro) meategi zaharretako orubeetan 1.100 etxebizitza egin ditu Eusko Jaurlaritzak azken urteotan. Gehien-gehienak, babes ofizialekoak edo sozialak. Proiektua berez zaharra da, 1990ko hamarkadaren hasieran taxutu zuten eta. Lehenengo, Indalecio Prieto etorbidearen eta Mina del Morro ikaste-txearen arteko orubeak urbanizatu zituzten. Bertan seihun bat etxebizitza altxatu dituzte eraikin handietan batuta. Euretako batek zirkulu baten erdiaren itxura dauka.

Beste aldean lehenengo blokeak altxatu ziren. Gero, behealdean, Larreagaburu etorbidearen parean, bloke altu gehiago. Euretako baten, adineko pertsonentzako egoitza paratu dute. Eta azkenik erdiko tartea urbanizatzeari ekin zioten. Ere hori sasoi baten kamioiak eta autobusak aparkatzeko erabili zuten. Bilboko Udalak 90ko hamarkadaren bigarren erdialdean eremu hori urbanizatzeko lehiaketa bat eratu zuen, ikasleentzat ariketa gisa pentsatuta.

Hala ere, lehiaketa hartatik Nafarroako Unibertsitateko ikasleek egindako proposamena oinarritzat hartuta, gaur egungo etxeak eraiki dituzte. Etxe bereziak dira, gehienak solairu



bikoak dira eta. Eta teilatu barik, terraza daukate gainean. Eraikinok aldatsari estu-estu atxikita doaz behetik gora. Amaitu eta gero berdegunez inguratuta egongo dira.

EGUZKITSUAK

Dentsitate gutxi urbanizazioa da hori eta, ondorioz, espazio asko behar izan dute etxebizitza gutxi batzuk altxatzeko. Etxebizitza eguzkitsuak izango dira, eta kanpoko itxurari dagokionez, andaluziar herrieta-ko etxeen tankerakoak.

Edozelan be, kritikarik ere eragin dute etxe berriok. Aditu batzuek


espazio larregi erabili izana salatu dute eta beste batzuek itxura 'motza' daukatela esan dute, 'kontenedoreak ematen dituzte' esan dute.

Etxeok amaitutakoan, oraindik bloke gutxi batzuk geldituko dira altxatzeko. Ondoren, alderdi horretako urbanizazioa biribiltzeko Larreagaburuko gaina faltako da. Bertan Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak 27 hektareako parke bat iragarri dute. Hala ere, proiektu hori motel-duta dago une honetan. Eta horrekin lotuta, Karmelo ikastola berriaren eraikina ere bertan altxatzeko asmoa zeukan Eusko Jaurlaritzak.



Atxuri berria agerian

Atxuri eta Santutxu arteko eremua ere obretan dago aspaldion. Azken hilabeteotan, goialdeko etxeak altxatu dituzte, baita behealdeko batzuk ere. Eta hasi dira forma hartzen gainerako ekipamenduak. Besteak beste, parkearen erdian atonduko duten auditoriuma.



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo
 Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.
 Izena:
 Abizenak:
 Kalea: Zenbakia:
 Herria: Herrialdea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito):

DOHAIN

Sinadura


**PICO MAYOR (746 M.) - ALTA GALDAMES (713 M.)
 PEÑA PASTOR (675 M.) - MUSKIZ**

Bilbotik Muskizera joan eta semaforoak dauden tokian Sopuerta-Galdameserako errepidea hartuko dugu. Semaforoetatik bostehun metrotara gutxi gorabehera eta lehengo biragunea pasatutakoan errepide estua irten da ezkerretara iturri (A) baten ondoan, Memerea auzora heldzeko. Stop jartzen duen ikurraren ondoan eskuinaldera joko dugu. Laster auzo honetako goialdeko azken etxera heldu eta han utziko dugu autoa.

Leku horretatik oinez eta zementuzko bide batetik biragune batzuk eginez, eroso eroso joango gara igotzen. Laster Cotorrio auzora helduko gara. Lehen txalet polit bat pasatu behar dugu eta apur bat geroago biragune batean etxe bikoitz bat ikusiko dugu. Han etortitako bidea utzita, eskuinerantz irtetzen den bidetik (C) igoko gara aldapa gogorrean baserri batzuen ondoan dagoen iturria eta garbilekua ikusi arte. Ia bertan, apur bat geroago, bidegurutz batean (D) egongo gara baina ez gara ez ezkerretara ez eskuinaldera joango, baizik eta eskuinaldetik irten eta igotzen den bidetik. Santelices-Zugaztiara (La Arboleda) (E) doan errepidera irtengo gara baserri handi baten ondoan. Errepide hartatik ezkerretarantz jarraituz kilometro batera Txutxiren taberna pasatu eta gero Siete Robles deritzon atsedean lekura helduko gara. Bertan Sefoconaren txartel bat dago, bertoko jendeak 'La Campa del Chingao' (F) izenez ezagutzen dute. Landa honetan iturria, mahaiak eta erretegiak daude, baita gaztainondo pilo bat ere.

Landa hori gorantz zeharkatuz iturriaren eskuinaldetik doan bidexkatik goialdean dagoen basabide zabal bat hartuko dugu.

Ezkerretara joanez gero iturria duen ur gordailu bat ikus dezakegu. Basabide hori jarraituz ez dago inolako galbiderik baina nahi badugu bidelaburrak har daitezke azkenik lepo batera heldzeko. Han pinu (G) bakarti bat dago. Basabideak ezkerretara jotzen du eta hamar bat minututan agergune zabal batean garenean eskuinerantz bost minututara Bentuña edo Pico Ventana dago, baina guk ekarri dugun bideari eutsiko diogu. Laster, bidean aska handi bat ikusiko dugu, iturri ederrarekin. Orduan aldapatxo bat igota beste agergune (H) batera irten eta aurrez aurre Peña Pastor (673 m.) harkaitzezko tontorra edukiko dugu. Gailurrean errota antzeko txartel-kutxa dago. Bere aurrean ikusten den basabidera jaitsiko gara eta eskuinerantz igoz denbora laburrean Alta Galdames (713 m.) tontorra lortuko dugu. Handik aurrera jai-



tsiera dago eta berriz igoera hasten denean, Eskatxabel trikuharriaren aztarnak ikus daitezke bide erdian. Aldapa hori amaitzean, beste trikuharri baten aztarnaren erdian, dago Pico Mayor (746 m.) mendia adierazten duen txartel kutxa.

Hara heldzeko eskuinaldean haran bat ikusi dugu eta hustutako herri baten aztarnak, El Saucó. Herria inguruetan ikusten diren meategien ustiaketarako egin zuten. Haranak badu gauza bitxi bat, irteerarik ez izatea, izan ere urak lur azpian sartzen baitira, Uraiaga kobazulotik irteteko. Igoera osoa bi ordutan egin daiteke.

Sastrea PEDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU BILBO
 Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro
 Tfonoa: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com

HORTZ KLINIKA GERMÁN BERGARETXE
 GABRIEL RESTI, 30 4. G TXURDINAGA
 94 412 82 74

MESÓN GURETXE
 Santutxuko poteo gunean

UMEENTZAKO IPUINAK BAI, BAINA SEXISMO BARIK

Emasiak 'Aisialdian ipuinen bidez sexismoari aurre egiteko aholku sorta' plazaratu du



Umeei ipuinen bidez mundu baten ikuskera ematen zaie. Argazkian, Txurdinaga eta Santutxuko umeak Euskararen Astearen

XXI. mendean ipuinak tresna eragingarria dira umeen heziketa prozesuan. Zabalbideko Emaisia elkarteak ere horrela ikusten ditu, baina sexuen arteko banaketek eta rol estereotipatuek bere horretan dirautela baieztatu dute. Horregatik, aldaketa bat eskatu dute eta bidea erraztu dute hezitzaile eta begiraleentzako esku liburu batez. Azken finean, ume literaturaren bidez nagusiek umeentzat zelako mundua nahi duten antzeman daiteke eta.

Emaisia elkartearen Urtxintxa eskolako andreak batzen dira. Emakume talde gisa, xake mate bilduma jarri zuten martxan orain dela hiru urte. Harrez gero hiru esku liburu plazaratu dituzte, hezitzaile eta begiraleentzat pentsatuta. Bertan, sexuen arteko bereizkeria saihesteko aholkuak eman izan dituzte.

Aurtengoak, hain justu, ipuinak dauzka protagonista. 'Aisialdian ipuinen bidez sexismoari aurre egiteko aholku sorta' darama izenburu. Mila bat ale ateratu dituzte, aurreko biak bezalaxe, euskara hutsez. Doan




banatuko dute udalekuean, aisialdi elkarteetan eta ikastetxeetan.

Ipuinak zergatik? Emasiako arduradun Bea Medranok azaldu digu. "Azterketa bat egiten ari gara. Ondorio guztiekin liburu bat plazaratuko dugu aurrerantzean. Oraingoa hasiera baino ez da. Euskaraz argitaratutako ipuinak aztertu ditugu eta oraindik ere sexismoa islatzen dutela ikusi dugu". Izan ere, aztertutako liburuak idatzi berriak dira, 'Txanogorritxu' klasikoaren bertsio bat izan ezik.

Alde horretatik, gaur egungo ipuinetan egoera berriak islatzen




badira ere -gurasoen banaketak, sexu bereko gurasoak, adopzioak,...) oraindik ere rol eta estereotipo tradizionalak leku zabala daukate. "Kasu batzuetan igual neskatila bat da protagonista, eta oso aktiboa da, baina azkenean, betikoa, printze urdinaren zain dago. Edo bestela haren amak sukaldean lanen dihardu aita sofan etzanda dagoen bitartean", aipatu du Medranok.



duerak, irudiak,... Horiei guztiei erreparatzeko, sexuen arteko bereizkeriari zirrikiturik ez lagatzeko. Alde horretatik, egile eta argitaletxeek pertsonaiak zaindu behar dituzte, nortasun alde-tik, sexuen arteko oreka mantenduz eta eredu diferentek zabalduz. "Ez dadila izan beti neskatilek eta mutilek betiko rola gautatzea", zehaztu du Bea Medranok.

Emasiako ipuinak eragingarriak direla sinetsita daude. "Egia da gaur egun irakurketa gero eta gehiago eskolarekin lotuta dagoela -aitortu du Medranok-, eta ume zein gaztetxoan aisialdian ez ei daukala leku askorik. Baina eduki dezake, eta ipuinak, bereziki, aukera asko eskaintzen ditu".



BIDE GEHIAGO

Beraz, horrelakoetan sexismo zelan zabaltzen den kontutan hartzeko eskatu dute Emasiakoek: pertsonaiak, jar-

GOZOKI MAGIKOAK

Emasiak esku liburu ipuin ez sexista batekin osatu du. Ipuina Urtxintxaren web gunean dago ikusgai (urtxintxaeskola.org). Emasiako emakumeek eurek egin dute. 'Gozoki magikoak' dakar izenburu eta lau eurotan daukate salgai. Bertan etengabeko aldaketa islatu nahi izan dute, gaur gorria eta motza dena bihar urdina eta polita izango da. "Herri normal bateko bizitza aldatu da gozokidenda berri bat zabaldu dutenetik. Herria kolorez aldatu da", kontatu du Emasiako Bea Medranok.

Kolore eta itxura aldaketa horiek egileek nabarmendu nahi izan dute "ez dagoela pertsonak markatzeko astirik. Gaur modu batekoa dena igual bihar ez. Dena diferente, dena dibertigarria", argitu du. Gainera, irakurleak gustuko amaiera aukeratu ahal du. Berba baten, Emasiak bere gomendioak ipuin baten hezurramitu ditu, sexuen arteko banaketa eragiten duten rol eta estereotipoak albo baten lagata.

JUSTUEGUNE, ARBOLANTXA ETA TETUANE

ABUZTUAREN 5EAN OSPATUKO DUTE MAHATSORRI
EUSKALDUNEN ERROMERIA

Abuztuaren 5ean izango da aurtengo Justuegune jaia. Azken urteotan Otxarkoagako Pa Ya konpartsak suspertu eta biziberritu du antzinako erromeria hori eta mahatsorri askoren topagune bilakatu. Lehenengo Arbolantxan eta gero Tetuaneko landan, giro polita sortu ohi da. Aurten bertsolariek Arbolantxan kantatuko dute.

Testua: *Itxaso Perez*
Argazkiak: *BERTON*

Begoñako errepublika zaharreko erromerietatik gutxiak dirau. Begoñara egiten direnak eta Justuegune baino ez, zehatzago esanda. Justuegune San Justoren ermitan egiten zen antzinakotan baina 1940 urte aldera baseliza hura bota zutenean erromeria galdu zen. Azken urteotan Otxarkoagako Peña Pa Ya konpartsak biziberritu du.

Abuztuaren lehenengo zapatuan goizgoizetik gozatu ahal izango dugu erromeria honetan Tetuaneko landetan, Leon jatetxearen ondoan. Hasi, baina, Arbolantxako Goikoetxe baserriaren atarian hasiko da. Arbolantxa Otxarkoaga gaineko baserri aztoa da.

Lehenengo, meza ospakizuna, goizeko 11etan puntu-puntu. Lerro hauek idatzi orduko ez dakigu zein abade joango den. Beste urte batzutan Begoñako parrokoa etorri izan da. Badakigu, ostera, nobedade baten berri: aurten bertsolariek menditik jaitziko direla euren emanaldia egiteko. Aurreko urteetan Tetuaneko landetan egin izan dute saio baina aurten Arbolantxan izango da. Horrela, Arkaitz Estiballesek eta Etxahun Lekuek meza ostean egingo dute euren kantu



jarduna. Ondoren, txokolatea, sardinak eta esku-soinuagaz dantzak.

TETUANE

Horren ondoren, bolanderak amaitzear egongo dira. Batzuk mezari adi-adi egongo diren bitartean, beste batzuk patatak eta patatak zuritzen eta txikitzen arituko dira goiko landetan. Aurtengo berrikuntzak hauek dira: meza osteko sardinada, patata tortilla txapelketa, eta 13:00etan hasita igelan txapelketa ere. Azken hauek Tetuane landetan izango dira.

Ordu bietarako tortillak aurkeztu beharko dira, Pa...ya konpartsako norbaitek jan ez badizue lehenengo. Orduan erabakiko da zein den tortillarik goxoen, itxurosoena, politena... . Lasai, ez Arzak ezta Argiña-



no ere ez dira epaimahaiena egongo.

Azken urteetan bezala, koardila bakoitzak bere txokoa atondu eta bazkaltzeko prestatuko da. Bazkari herrikoia baina on-ona!

Bazkalostean, ohiko bazkalostekoa. 16:30ak aldera, mus txapelketari ekingo diote. Zahar eta gazte, adituak eta ezjakinak lehia bizian. Baina dena ez da hil ala bizikoa izango. Arratsaldeko 5etan gutxi gora behera

JUSTUEGUNE'06

11etan: Meza. Arbolantxan. Ondoren, bertsolariak, txokolatea, sardinak, dantzak.

13etan: Tortilla eta igela lehiaketak. Tetuaneko landan.

15etan: Bazkaria. Tetuane.

16:30ean: Mus txapelketa. Tetuane.

17:00etan: Herri jokoak. Tetuane.

20:00etan: Erromeria. Tetuane.

21:00etan: Txerriki jana. Tetuane.

herri jokoak hasiko dira: sokatira eta txingarute. Apustuak gori-gorian, jende gaztea gogor jotzen datorrelako.

Eta indarra ez baduzue oraindik galdu, Arizgoiti taldeak galdu araziko dizue era polit batean. Dantzaldia arratsaldeko 8etan hasiko da eta vals eta arin-arinaren artean, 9etatik aurrera txerrikiak jan ahal izango dituzue pote baten lagun-tzaz indar horri bultzada-txo bat emateko. Ondo pasa!!


ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe



Mañari

Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO

Tel. 94 411 99 33

GOJIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

horoskopoa

- Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.**
Laster baten ez da zure arrastorik geldituko. Urtzekotan zagoz!!
- Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.**
Opari polit bat egingo deusue oihanean barrena ibil zaitez...
- Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.**
Lelengo eguneko ha ostabe ikusteko gogoaz? Lasai, altzau begiok errebistatik eta... ikusiko dozu!
- Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.**
A zelako oporrak! Borbondarrenak baino hobeagoak, bai horixe.
- Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.**
Izurdeak itsasoan eta basurdeak mendian, denak dira urdeak.
- Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.**
Bero zantar honeri aurre egiteko errezeta bakarra dago: Zoaz Suomi aldera.
- Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.**
Begira-begira dekok/na. Hertzainek kantatzen eben legez, garaia dok/na, esaiok/na, amodioaren aurrean egia lotsa gabe esaten ikasi behar dok/na.
- Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.**
Parrandazaleen bidea egin behar ei dozu uda honetan. Iruñean hasi ostean, Gasteiz, Justugune, Portu, Aste Nagusia, Lekeitio, Bermeo, Uribarri, Lekeitio, Parezi, Antzora,...
- Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.**
Ez egin barrerik. Ez notsun esan Argentinak noizko mundiala irabaziko dauan.
- Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.**
Zenbat eta jente gehiago egon, zeu gusturago. Hori be normal-normala ez da...
- Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.**
Larruazala kremiaz babestea ondo dago. Baina ondo emoten be ikasi behar dozu, fenomeno!
- Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.**
Hasi gara. Lelengoa katedralean zuri-urdinen kontra. Iazkoaren antza larregi, ezta?

agenda

ABUZTUAK 5
JUSTUGUNE. LEHENENGO ARBOLAN-
TXAN ETA GERO TETUANeko
LANDAN. PEÑA PA YAK ANTOLATUTA.

ABUZTUAK 10-13
ALGORTAKO PORTU ZAHARREKO
JAIK.

ABUZTUAK 14-17
ONDARROAKO ANDRA MARI JAIK.

ABUZTUAK 14-18
GERNIKAKO SAN ROKE ETA ANDRA
MARI JAIK.

ABUZTUAK 15
ANDRA MARI EGUNA. ERROMERIA
BEGOÑAN.

ABUZTUAK 16
SAN ROKE EGUNEKO ERROMERIA
ARTXANDAN.

ABUZTUAK 19-27
BILBOKO ASTE NAGUSIA.

